

ZEZEN FESTA



EUSKAL HERRIAN

*Zezenak dira
beltz beltzak dira
adar zorrotza
buztana motza
harrapatzen bazaitu
harrapatzen bazaitu
bertan bertan hilko zaitu
bertan bertan hilko zaitu*

AURKIBIDEA

1.Sarrera	2
2. Zezenketak	2
2.1 X-XV mendeak.....	3
2.2 XVI-XXI mendeak.....	5
2.3 Toretzaile euskaldunak: Luis Mazzantini eta Castor Jauregibeitia...	7
3. Beste zezen-festa batzuk.....	7
3.1 Sokamuturra.....	7
3.1.1 Azpeitiko sokamuturra.....	9
3.2 Entzierroa.....	9
3.2.2 Debako entzierroa.....	10
4. Amaiera.....	10

1. Sarrera

Aspalditik datoz Euskal Herrian zezenekin burututako ospakizunak. Izan ere, hala frogatzen du gure landetan historiaurretik bizi izan den “bos primigenius”aren oinordeko den betizua harrapatu eta herrietako festetan erabili izanak. Hori dela eta, ez da falta gurean, ganadu hau Euskal Herriko zezen gorria bezala definitu duenik ere, Gipuzkoako Foru Aldundiko albaitari J.M.Plazaola, kasu. Izatez, adardun hau antzinatik Pirinioetako bi magaletan bizi izan da askatasunean, gizakiekin zuzeneko harremanik eduki gabe. Errealitate horri esker, ganaduzaleek aukera izan dute, euren herriko festak gertu izan direnean, mendira joan eta, batzuk harrapatu ondoren, herrietako ospakizunetara ekartzeko.

Dena dela, bertoko adardun-arraza hau ez da izan ospakizunetan erabilitako bakarra, zeren eta Gaztela-Leonetik nahiz Andaluziatik ekarritako animaliak sarritan erabili izan baitira, batez ere, hiriburuetan. Era berean, XX. mendeko azken hamarkadetan gipuzkoar eta bizkaitar ganaduzaleek jatorriz kanpokoak ziren aziendekin lehen urratsak eman zituzten, eta, gaur egun, makina bat dira hemengo arrazak erabiltzeari muzin egiten diotenak. Horrela jarduteko arrazoi nagusitzat, besteak beste, hurrengo aipa dezakegu: egungo toreo modernoaren eskakizunetara hobekien moldatzen diren zezenak haztea.

Hau guztia dela eta, denboraren irizpidea oso garrantzitsua izango da lan honen 2. atala sailkatzeko momentuan eta, horrela, pasarte bakoitzean aldian aldiko berezitasunak nabarmendu ez ezik ordura arte emandako bilakaerari ere erreparatuko diot. Horren harira, X. mendetik XV. mendera salto egingo dut, lehenik eta behin. Ondoren, XVI. mendetik gu bizi garen mende honetara arte jazotakoa jorratuko dut. Horrez gain, gurean jaiotako izen handiko toreatzaile bik lekua izango dute nire solasaldian.

Hala ere, nire jarduna ez da soilik toreatzaileak nahiz zezenak partaide izan diren eginkizunetara mugatuko. Egia esan, zezenak aukera asko eman digu. Sokamuturra eta entzierroa dira, hurrenez hurren, adibide garbienak. Horiek 3. atalean agertuko zaizkigu hurrenkera horretan. Era berean, oker egongo da atal hori usadioak hain sutsu mantendu izan dituzten herri bi –Azpeitia eta Deba– alboratzen baditut. Horren ondorioz, merezi duten aipamena jasoko dute.

Amaitzeko, zezen-festaren etorkizunari buruzko gogoetaz jardungo dut. Egia esan, ezer gutxi horri buruz, zeren eta lan honen benetako xedea iraganeko pasadizoen azterketa baita.

2. Zezenketak

Errepaso historikoa hasi aurretik, zertzelada batzuk eman nahi nituzke zezenketa hitzari buruz. Zezenketa aipatzean, bazter ezazue gaur egungo toreo modernoaren ideia, hark azken honen jatorria izatea beste meriturik ez baitu. Horrela, mende haietan zezenketak ezberdinak ziren. Askotan, zaldun batzuek, zezena toreatu eta gero, lantzekin hiltzen zuten; beste festa batzuetan, ordea, gaur egungo errektarien antzera, makilekin nahiz amarruekin zezena engainatzea izaten zen ospakizunaren helburua.

Horrez gain, zezen-plazarik ez zegoen, eta, orokorrean, herrietako plaza nagusietan egiten ziren ospakizunak. XVI. mendera iritsi arte itxoin beharko dugu egungo zezen-plazen antzekotasunak dituzten adibideak ikusteko, esate baterako, Zestoako plaza.

Beste alde batetik, XVIII. mendetik aurrera erakundeen esku-hartzea nabarmena izango da bai ikuskizunaren antolaketan, bai garaiko toreatzaile ospetsuen aukeraketan. Esaterako, Bilboko Aste Nagusiaren egitarauaren barnean agertuko diren zezenketek izaera instituzionala izango dute, jai-egunetatik kanpo egiten direnagatik bereizteko. Hori dela eta, boteredunen zuzendaritzapean burutuko diren zezenketen kalitateak nabarmen egingo du gora.

Beste batzuen artean, aipatutako horiek izango dira hurrengo puntuetan jorratuko ditudan berezitasunak, hamar mendeko gertakari garrantzitsuenen aipamenarekin batera.

2.1 X-XV mendeak

X. mendetik XV. mendera igarotako tartean, zezenketak ospatu izanaren lekukotzat har daitezke hurrenkeran egiaztatuak dauden aipamen historikoak.

Idatzizko lehenengo data Logroño ondoan kokatua dagoen Varea herrian aurki dezakegu, non 1135ean zezenekin jaialdi bat egin baitzen, Alfontso VII.a Nafarroako Errege izendatu izana ospatzeko. Gogoratu behar da garai hartan Nafarroako Erresuma gaur egun Errioxa edo Kantabriakoak diren lurretara heltzen zela.

Beste alde batetik, Gipuzkoan zezenketen aurrekari, Oñatiko Protokoloen Erregistroko dokumentu batean agertzen den gertakaria har dezakegu. Han, Eibartik gertu dagoen Soralezeko Irure parajea 1160an ospatu zen jaialdiari buruzko kontaketa egiten da. Antza, urte hartan Nafarroako Errege Antso VI.a eta Iruren bizi zen Celinos jauna, bere koinatua, muturtuta zeuden arazo txiki batzuegatik, eta, horiek konpondu ondoren, erregeak 3 zezen ehizatzeko agindua eman zuen, akordioa lortu izana ospatzeko. Izanak izan, zezenak orduko usadioek arautzen zuten eran hil zituzten, eta euren haragia txakurrei eman. Gaur egun, Irure baserriko etxe aurreko armarrarian 3 zezen eta makina bat zakurren buruak agertzen dira, orduan gertatutakoaren oroimenez.

Araban ere erreferentziarik ez da falta 1202. urtetik aurrera; izan ere, hala adierazten dute sute handi batek suntsitu ondoren, Gasteizen “Correrias” kalea berreraiki izan zenaren aipuek. Garai hartan, “Auzunearen Jaiak” ospatzen zirenean, arrunta zen zekorketak antolatzea leku horretan. Gainera, urteek aurrera egin ahala, ospakuntza haiek alde zaharrean barrena hedatu ziren, batez ere, “Pintorerias” kalera. Horretaz aparte, XV. mendean, frogatua dago erregeek bai hiria bisitatzen zutenean, bai egun berezietan, antzeko ekitaldiak egiten zirela.

Bestetik, gure herriko historialariei eskertu behar diegu, aldian-aldian, gure ohituren inguruan ikerketa zein hitzaldien erantzukizuna hartu izana. Horrela, nabarmentzekoak dira Gregorio Mujikak, Ormaiztegiko semeak, 1918. urtean Oñatiko Euskal Ikasketen I Kongresuan adierazitakoak; bere aburuz, “zezenak betidanik Bermeon egon dira, erroturik dagoen ohitura baten froga bilakatu direlarik”.

Adierazitakoa frogatzeko, 1353ko ordenantzak ekarri zituen gogora. Testuaren 4. kapituluak, San Pedro jaietan izan ezik, beste edozein egunetan zezenekin ibiltzeko debeku orokorra jasotzen da. Horren salbuespena, ordea, Kofradiako Goardien edo Maioralen balizko baimena izan zen.

Aurreko paragrafoan adierazitakoarekin bat, orduko Fuero, Ordenantza eta Araudiek sarritan arautu izan zituzten balizko protagonistak adardunak izan zitezkeen gertakariak. Esate baterako, Tuterari, XII. mendean, Alfontso Erregeak emaniko Sobrarbe Fueroan, 293. artikulua hurrengo izapidetzen zuen: “.. ganaduak hiltegi bidean kalteak sortzen baditu, jabeari egotzi behar zaizkio; halere, jaialdi batean ezbeharra gertatuz gero, ez da zigorrik jarriko..”.

Azkenik, garai hartan toreatzaileei eginiko ordainketen adibide da Bizkaiko Enkarterrietako Balmaseda herrikoa: udalak 1400. urtean eginiko ordainagiriak gorde zituen.

2.2 XVI-XXI mendeak

XVI. mendetik aurrera, zezenketek gurean errotu ez ezik izugarritzko bilakaera ere ezagutuko zuten, dela toreatzeko teknikaren aldetik, dela zezen-plaza modernoaren sorkuntza aldetik. Era berean, XVIII. mendean lehenengo kapoteak agertu ziren, eta gaur egungo zezenketen pasarteak, hots, zezenari harrera ematea, pikaldia, banderilak eta lantze gorena erabili ziren lehen aldiz, Espainiako hegoaldean XIX. mendean sortutako toreatze-ereduak mugimendu haiek bere egin arte. Berrikuntza horien adibide dugu, esaterako, Euskal Herritik kanpo, Goya pintore madrildarrak marraztu zituen koadroak, zeinek ondo baino hobeto uztartu baitzituen margo-lana eta joera berriak.

Bestetik, Nafarroan, XVI. mendean, Felipe II.a Erregearen aginduz, Bizkaia eta Gipuzkoan eraikitako plazak koadro baten forma edukiko zuten. Gainera, derrigorrez balkoiak izan beharko zituzten, zezenketen ikusleak bertan kokatzeko. Horrela, XVII. mendean,

estruturara karratua edukiko duten Gipuzkoako eta Arabako zezen-plazen artean aipatu daitezke, besteak beste, Iruñeko Gaztelu plaza, Gasteizeko Plaza Berria, Bilboko Plaza Berria, Tolosakoa eta abar.

Bestalde, garai haietan ospatutako ekitaldien arrastoak ere nonahi aurki ditzakegu. Enkarterrietan, esate baterako, Etxeberria Miroñes anaiek diotenez, “Enkarterrietako usadio eta ohiturak” liburuan, Balmasedara XVII. mendean, Karrantzara eta Lanestosara XIX.ean, ospe handiko zein gutxi toreatzaileak etorri zirela.

Horrez gain, Bilboko hurrengo gertaera hau ere aipatu dezakegu. Jakin badakigu Bilbon San Anton plazan eta Plaza Berrian zezenketak ospatzen zirela. Dena dela, urte batzuetan ez zen horrelakorik jaso. Izan ere, Pio V.a aita sailduak debekatu egin zituen, harik eta 1575eko Gregorio XII.aren bula batek berreskuratu zituen arte.

Gipuzkoan, ordea, egoera bestelakoa izango zen urte haietan. Donostiako udal-artxiboan gordetako aktek hala islatuko dute, behintzat. Beraiei esker, jakin dezakegu bai 1566. urtean Plaza Zaharrean ospakizunak egon zirela, bai 1587an udalak plazan barrerak ipintzeagatik 342 erreale ordaindu zituela. Era berean, 1621ean Donostiako Udalak Francisco Lasarte zinegotziari San Roke eta Santiago egunetarako zezenak ekartzea agindu zion. Horren harira, 1651n Nafarroako Erriberatik 8 zezen ekarri ziren, esaterako.

Orain arte adierazitakoak zezenketak gustukoak izan zirela frogatzen badute, XVIII. mendetik aurrera jazoko diren gertaerek zaletasun hau berretsiko dute.

Horrela, mende honetakoak dira Debako zezenketen lehenengo aipamenak. Gorosabelek dioenez, 1743an Santa Engraziako baselizaren ondoan ospatu ziren. Gainera, herriko marinelak izan ziren parte-hartzaile nagusienak.

Garai haietako berrikuntzetako bat ospakizunen instituzionalizazioa izango da. Esate baterako, erderazko “Corridas Generales de Bilbao” terminoa sortuko da. Horrela, bereizi egingo dira izaera ofiziala duten ospakizunak, hau da, Bilboko jaietako egitarauan jasoko direnak, bestelako ospakizunetatik.

Beste alde batetik, hemengo toreatzaileen aldeko ekimenen lehenengo adibideak eman ziren garai haietan. Hots, ordura arte toreatzaile kanpotarrak ekartzen baitzituzten, egoera errotik aldatu eta jatorriz bertokoak zirenen ardura bilakatuko zen zezena toreatzea eta hiltzea. Horren froga dugu Eibarko Udalak 1807an hartutako erabakia, non ekainaren 21, 22, 23 eta 24ko zezenketen gidaritza gipuzkoarren esku utzi zuen.

Bukatzeko, joan zen mendeko erreferentzia nagusiei erreparatuko diet segidan. Lehenik eta behin, esan daiteke mende hau hitzaldi honen gai nagusiaren bilakaerarentzako oparoa izan zela. Alde batetik, Donostiako, Gasteizko eta Bilboko zezenketetan ikuskizunaren kalitatearen aldetik izugarritzko aurrerapausoa eman zelako. Bestetik, lehen aipatutako hirietako feriak toreatzaile onenen agendan gorritz markatuak agertu zirelako. Horrez gain,

zaletuek Euskal Herriko toreatzaile ezagunenetariko biren jardunaz gozatzeko aukera izan zuten.

Bestalde, Donostian 1903. urtean Txofreko Plaza eraiki zen, donostiarrentzat eta Donostiarentzat Kontxako badiarekin batera ikur bihurtuko zena. Eraikuntza horrek 1973. urtea arte iraun zuen. Bertatik, mende horretako toreatzailerik onenak igaro ziren: El Viti, Curro Romero, Antonio Ordoñez edo Luis Miguel Dominguin, besteak beste. Lehen aipatu moduan, 1973 urtea arte ospatu ziren zezenketak Donostian; 1998an Ilunbeko zezen-plaza berrian, Francisco Rivera Ordoñez toreatzaileak, Alvaro Domecq Diez-en lehenengo zezena toreatu eta hil arte.

Gasteizen, Pantaleon Iradier arkitekto gasteiztarraren gidaritzapean eraikitako 68 metroko zabalerako zezen-plaza Adurzako aitzinako herrian kokatua zegoen. Kokaleku honetan burutu ziren Gasteizko Andra Mari birjinaren omenez ospatzen ziren jaietako zezenketak, 2006. urtean hura eraitsi eta leku berean berria berreraiki duten arte, hain zuzen ere.

Amaitzeko, Bilboko Vista Alegre zezen-plazak bere zereginei jarraitzen dio, 53 urte bete dituen urte honetan.

2.3 Toretzaile euskaldunak: Luis Mazzantini eta Castor Jauregibeitia.

2.3.1 Luis Mazzantini Eguia.

1856an jaio zen Elgoibarren (Gipuzkoa). Aita Giuseppe Mazzantini zuen eta ama Bonifacia Eguia. Zazpi urte zituenean, familia Kantabriara joan zen bizitzera. Reinosa herria hartu zuten bizitoki, zeren eta garai hartan Giuseppe Mazzantinik Alarretik Santanderrerako ibilbidea egiten zuen trenean lana aurkitu baitzuen. Horrela, 2 urte igaro zituzten, 1860an Bilborako bidea hartu zuten arte.



Luisek nerabezaroa Laudion pasatu zuen neurri handi batean. Horren ondorioz, Laudion bere anaia Tomas jaio zen 1861ean. Era berean, lehenengo ikasketak Luisek Laudioko eskolan egin zituen 1862an.

Hurrengo hamarkadan, ordea, Mazzantini sendiak urte batzuk atzerrian igaro zituen. Marsellan lehenbizi, 1866tik 1869ra, eta, Erroman, ondoren, 1870tik 1873ra. Ondoren, Espainiara itzuli zen eta, aitaren ogibidea zela eta, makina bat herritan pasa zituzten hurrengo urteak, esate baterako,

Navalmoral de la Mata, Malpartida edo Talavera bezalako herrietan. Azken herri hau, gainera, garrantzitsua bilakatu zen Luisen bizitzan; izan ere, 1880an toreatzaile izateko lehen pausoak eman zituen. Zekorketa batean parte hartu zuen, hain zuzen ere.

1880tik aurrera toreatzaile jardun zuen eta garai horretako pasarte garrantzitsuen artean hurrengoak aipatu daitezke, hurrenez hurren:

- 1881ean Talaveran lau zekor hil zituen. Tomas anaiak urte horretan ekin zion ogibide honi.
- 1883an Madrilen Mazzantini anaiak lehen aldiz kartel berean agertu ziren abuztuaren 5eko zezenketan.
- 1885ean Albaceten zezenak harrapatu zuen.
- 1886an Antonio Fernandez Herediaren azken erosi zuen. Mazzantini izena zeraman azkeneko lehen zezenak, ordea, 1891n Marsellan toreatu zituzten.
- 1896an zezenak Bilbon harrapatu zuen.

1905eko martxoaren 8an azkeneko aldiz Guatemalan toreatu zuen. Tomas anaiak martxoaren 17an koleta moztu zion, hamalu urteko ibilbide oparoari amaiera emanez.

Luis Mazzantini azkeneko urteak politikagintzan eman zituen. Madrilen diputadu lanetan jardun zuen 1916an. 1919an, berriz, Guadalajarako gobernadore izendatu zuten eta 1920an Avilan beste horrenbeste. Madrilen, azkenik, 1926an bihotzeko batek eraman zuen Luis betirako.

2.3.2 Castor Jauregibeitia Ibarra.

Castor Bilbon jaio zen 1876ko abenduaren 20an, Cristo kaleko 21. zenbakidun baserrian, zehatz-mehatz. Ortua lantzea eta txakolin egitea zuten ogibide gurasoek garai hartan. 15 urte zituenean, aita hil zitzaion, eta bizilagun baten etxean hartu zuen ostatu. Antza, momentu horretan sortu zitzaion toreatzaile izateko gogo. Baliteke garai haietan Bilboko zezenketek zuten itzal handiak erabakia hartzera lagundu izana. Izan ere, oraindik futbolak ez zuen aparteko garrantzirik bilbotarren artean.



22 urte zituenean, Bilboko Vista Alegre zezen-plazako agintedunak isuna jarri zion, baimenik gabe zezen bati banderillak ipintzeagatik. Hortik aurrera, Castor ospetsu bilakatu zen adardunen aurrean erakutsi zuen trebeziarengatik. Lehen aldiz, Campos Eliseosetako zezen-plaza karratuan zekorketa batean parte hartu zuen 1897an. Euskal Herrian, ordea, fama handia hartu zuen, beste ekintzen artean, 1903an Eibarko zezen-plaza inauguratzeagatik.

Urte bat beranduago, 1904ean, maila gorenera salto egin zuen, 1918an erretiroa hartu arte. 14 urte horietan guztira 484 ospakizunetan parte hartu zuen Espainia, Frantzia, Portugal, Mexiko eta Perun.

3. Beste zezen-festa batzuk

3.1 Sokamuturra

Sokamuturra deitzen zaio herritarren aisialdirako lepoko gisa soka daraman zezena kalean aske uzteari. Zehatz-mehatz, Bizkaian eta Gipuzkoan egiten dira sokamuturra gehien. Araban eta Nafarroan, ordea, sokarik ez da erabiltzen, Lodosan izan ezik.

Sokamuturraren jatorria hiltegia ganadua eramaten hasi zireneko unean koka dezakegu. Garai haietan, sokatik tiraka eramaten zen ganadua kaleetan zehar, eta ziur aski ekintza hark egoera xeblebre ugari sortuko zituen, besteak beste, animaliak, defendatzeko unean, ondokoak harrapatu nahi izatea. Hura zela eta, hiltegia bidaltzen zituzten aziendekin jolasteari ekin zioten orduko herritarrek, eta gaur egun ezagutzen dugun sokamuturren oinarriak ezarri zituzten.

XXI. mendean, sokamuturrak gero eta urriagoak dira, 1980ko hamarkadarekin alderatuta. Bilbon, esaterako, entzierroak eta sokamuturrak ospatu ziren hasierako Aste Nagusi haiek aspaldiko kontua dirudite. Dena den, badira herri batzuk euren ohiturei eusten dietenak: Otxandioko eta Durangoko jaiak dira nabarmenenak Bizkaian. Gipuzkoan, berriz, herri gehiago dira jai-egitarauetan aurreikusten dituztenak, adibidez, Errenteria, Elgoibar, Pasai Donibane edo Oñati. Dena dela, sokamuturra herri batekin lotu behar badugu, hori Azpeitia da. Berez, Azpeitiko sokamuturrak beti izan du ospe handia. Era berean, azpeitiarrek zezenzale porrokatutzat dute euren burua. Gainera, azpeitiarrek beste batzuegandik bereizteko erabilgarriak diren baloreak islatzen dituzte sokamuturrean, kasurako, zezenari eta soka-mutilei zor dieten errespetua. Beraz, Azpeitiko sokamuturra aztertzeaz batera, gurean erroturik dagoen zezen-festa mota hau sakonduko dut.

3.1.1 Azpeitiko sokamuturra

Azpeitian sokamuturrak egin izanaren lehenengo testigantzak XVI. mendetik datoz. Hain zuzen, 1567ko urriaren 14ko ospakizunetarako, agintariek Juan Ondarrari eta Pedro Altunari zezen bana ekartzeko agindu zieten. Dena dela, 1518tik aurrera ere badira bestelako erreferentziak.

Bi mende beranduago, 1882 eta 1884 bitartean, sansebastianak eta inauteriak bitarteko denboran sokamuturrak ospatu ziren igandero. Gero, urte batzuetan, Done Sebastian egunera eta inauteri egunera mugatu zen sokamuturra. 1900ean, aldiz, berriro berreskuratu zen igandero egiteko usadioa. Azkenik, 1939. urtean osterara ere bueltatu zen sokamuturra 1900. urte aurreko egoerara.

Beraz, egiaztatu dezakegu antzina sokamuturrak urtarrilean eta otsail-martxoan ospatzen zirela, batik bat. Orain, aukera dago data horietan ez ezik Inazio Sainduaren egunean ere zezenaren aurrean lasterketak egiteko.



Horrez gain, Azpeitiak badu beste herrietan egiten diren sokamuturretatik bereizten duen ezaugarririk. Txistulariak, esate baterako, zezena ibiliko den kaleetatik igarotzen dira Txokolo famatuak eginiko eta 1982an Jose Mari Altunak berreskuratutako piezak jotzen. Antza, txistularien helburua herritarrak sokamuturrara erakartzea da. Era berean, Azpeitia da sokamutilak sokamuturraren partaide garrantzitsu egiten dituen herri bakarra. Bost sokamutil ibiltzen dira, behintzat, sokatik tiraka zezenaren norabidea zuzentzeko ahaleginetan. Jankkerak bereizten ditu beste herritarrengandik: praka eta elastikoa txuria; zapia eta gerrikoa, berriz, gorria. Euren zeregin nagusia, zezenak norbait harrapatzen duenean, hura bere presarengandik aldentzea izaten da, orokorrean.

Bestalde, hainbeste urtetan ohitura honi eutsi izanak anekdota, pasadizo eta bitxikeria ugari ekarri die azpeitiarrei. Horrela, makina bat dira *Botijo* oroimenean dutenak. Adardun ospetsu hau 1971n ekarri zuten lehenengoz herrira, eta 13 urtez segidan itzuli zen bertakoen gozamenerako.

Hasieratik zeresana eman zuen, beltza, distiratsua, handia eta indartsua baitzen. Gainera, mugikortasun handiko zezena zen, kalean alde batetik bestera gelditu gabe ibiltzen zena. Era berean, korrikalarietzako bikaina zen; lan handia ematen zuen; bere mugak zeintzuk ziren ondo baino hobeto zekien. Azken finean, erraz ikasten zuen zezen horietako bat zen. Modu berean, zaletuei arreta eta sasoi fisiko handia exijitzen zien ganadua.

Bukatzeko, azpeitiarrek inauteriak amaitzeko duten era berezia aipatu daiteke. Azpeitian zezena erretzen dute aratusteetako azken egunean. Antza, kostaldeko herria ez denez, bertokoez zilegi ikusten dute inauterietako protagonista erretzea sardinaren ordeztu.

3.2 Entzierroa

Sokamuturrak eta zezenketaz haratago ere badago beste ospakizun bat: entzierroa. Entzierroaren jatorria aspalditik dator. Zezenketa bat ospatu izan den bakoitzean, aurretik entzierroa egon da. Agian, ez gaur ezagutzen dugun Iruñeko entzierroaren antzekoa, baina entzierroa, behinik behin. Orain ez bezala, orduan, ganadutegietatik herrietara adardunak

oinez eramaten zituzten uhainek. Talde handia izaten zen, zeren eta idiak ere erabiltzen baitziren zezenak lasaiago joan zitezen. Zezen-plazara eraman baino lehen, kanpoaldeko soro edo lursail batean edukitzen zituzten hiru edo lau egun; ondoren, zezen-plazako ukuiluetara herriko kaleetan barrena ziztu bizian eraman arte. Hura zela eta, bakarren batzuk hasi ziren adarren aurrean korrikaldiak egiten, ordutik aurrera mantendu den usadio bati hasiera emanez.

3.2.2 Debako entzierroa

Beti egon izan dira zezenak Deban. Zezenak euskal mitologian aipamen berezia badu, Debako zezenak ez dira salbuespena. Gainera, aspalditik dator Deba eta zezenen arteko lotura; izan ere, Ekain edo Urtiaga bezalako kobazuloetan aurkitutako marrazkiek nahiz hezurrek hala frogatzen dute. Bereziki, Lasturreko haranean *betizuak* eta *larrabehiak* bizi izan dira *-bos primigeniusaren* oinordeko zuzenak-, animalia hauek aztertu dituzten biologoen iritziz.

Herrian, ordea, zezenak korritu izanaren idatzizko lehenengo erreferentzia 1601. urteko dokumentuan agertzen da. Debako Udaleko Artxibo Historikoan aurki daiteke hura. Han, San Roke egunean, zezen bat festetara ekartzeagatik, Joan de Etxanori 3 dukado ordaindu zitzaiola adierazten da. Dena den, baliteke data horren aurretik ere antzeko pasadizoak gertatu izana.

Entzierroak, bestalde, XIX. mendearen azken hamarkadako kontuak dira. Horrela, egiaztatuta dago 1892an Jorge Diaz eta Felix Gavari ganaduzale nafarren zekorrak ibili zirela. 1899an, berriz, Calahorrako Beriain eta Lasturreko San Nicolas ganadutegietakoak. Baita Fraile edo Makua azientetako adardun nafarrak ere XX. mendean. Amaitzeko, azken hamar urteetan batik bat Salamancako Puerto de San Lorenzoko animaliak izan dira herrikoak eta kanpotarrak arriskuan ipini dituztenak.



Entzierroaren zergatiari buruz, hurrengo ideiak eman daitezke. Nahi eta nahi ez, azientetatik animaliak zezen-plazara eramateko egin beharreko ibilbidearen azken zatia

herriko kaleetan barrena egin behar zen. Izan ere, ganaduzaleek eta zezen-taldeek Murillo de las Limas herrian ekiten zioten bideari, eta San Miguel eta Zunbeltz ondotik pasatzen ziren, tartean, Ataun, Lazkao, Beasain, Azpeitia eta Zestoa zeharkatuz; ondoren, Itziarretik behera Debara iritsi arte. Deban, Ossioko larreetan gordetzen zituzten entzierro eguna iristeko zain. Eguna iritsitakoan, goizeko lehenengo orduetan arinetan eramaten zituzten zezen-plazako ukuiluetara eta lasterketa hura baliatzen zuten herritarrek adarren aurrean korrika egiteko.

Gaur egun, San Roke jaietako ekitaldirik garrantzitsuenetakoa da, herritarren artean estimazio handia duena. Euskal Autonomia Erkidegoan ospatzen diren beste entzierroekin alderatuz, izaera propioa edukitzea ahalbidetzen duen ezaugarriak ditu. Animaliek, esaterako, adarretan babesik ez dute eramaten. Hortaz, adarrak zorrotz-zorrotzak dira. Bestalde, goizean entzierroan parte hartu duten zekorrek arratsaldeko 6etan nobilleroek toreatzen dituzte.

Bestalde, izualdiak eta lasterketak uztartzen dituen ibilbideak 450 metro inguru ditu. Denbora larregi ez dira ibiltzen batzuk eta besteak kaleetan. Minutu eta erdi, batzaz beste. Ibilbidearen lehen pasarteak ezkererantz egiten du, aldats baten abiapuntura iritsi arte. Aldapa igo ondoren, bihurtune txiki batean eskuinerantz jarraitzen du bideak San Joxeperaino. Hortik, Angulero kaleraino, zuzena da ibilbidea. Azkenik, jubilatuen elkarte eta Zibelzu zinema igarota, eskuinerantz egiten du berriro bideak zezen-plazaraino.

Entzierroaren hasiera bolandera baten ezta markatzen du. Ondoren, animalia guztiak jada kalean daudela ezagutzera emateko, bigarren suziri bat botatzen da. Bukatzeko, zezen-plazako kortan zekor guztiak sartu direnean, hirugarren txapligu batek egun horrek jada egin dituela bereak adierazten du. Behiak Ossioko ukuilura itzultzea eta bigantxak askatzea besterik ez da falta, bertakoek eta makina bat kanpotarrek hain gustuko duten ohiturari amaiera emateko.

4. Amaiera

Lan hau motz geratuko litzateke bertako pasarteak xede jakin batera bideratuta ez baleude, zeren eta, ene ustez, ez baita egokia orain arte jasotako gertakizunak soilik era neutro batean adieraztea. Izan ere, kontaketa horiek hurrengo bi terminoen inguruan –Zezenak eta Euskal Herria– hausnarketa bultzatzea eduki dute helburu. Hori dela eta, ikuspegi objektibo batetik egin beharreko ebaluaketatik hurrengo ondorio hauek atera daitezke: alde batetik, errealitate ukaezina da zezenketak direla Euskal Herriko ondare kulturalen osagarrietako bat, hots, makina bat mendetan hemen errotuta izan den ohitura, ez azken urteotako gertakaria; bestetik, zaleak beharrezko dituen ohitura izanda, gerta daiteke etorkizunean zaletasun falta horrek zezen-festaren amaiera ekartzea.

Horiek horrela, azken aldian bor-bor egon den eztabaida ere iritsi da Eusko Legelbitzarrera. Esaterako, joan zen urtean Ezker Batua alderdiaren ekimenez sustatutako ez legezko proposamen bat eztabaidatu zen, Animalien Babeserako Legea oinarri hartuta, zezenak babestu behar ziren edo ez erabakitzeko. Ekimenak ezezkoa jaso zuen legebiltzarrean. Ezker Batuak, Eusko Alkartasunak eta Aralarrek alde bozkatu zuten; Euskadiko Alderdi Sozialistak eta Alderdi Popularrak, ordea, aurka. Eusko Alderdi Jeltzaleak abstentzioaren hautua egin zuen. Ikus daitekeenez, gurean ez dago Katalunian adostu duten antzeko erabakirik onartzeko asmorik epe laburrean, behinik behin.

Hurrengo urteei begira ezin da igarri zer gertatuko den. Baliteke zezenketak ez debekatzea, baina zezenketen fase batzuk aldatzea; gerta daiteke zezena hiltzea beharrezkoa ez den toreatzeko sistema berri bat asmatzea. Baina zorigaiztokoa izango litzateke, ene iritziz, galaraztea, hainbat eta hainbat herritarren zaletasunari muzin eginez; beste horrenbeste sokamuturra eta entzierroei dagokienez. Dena dela, nire eginkizunak jada egin du berea, eta etorkizunak ekarriko duena hurrengo batean aztertu beharko da.

Bibliografía

DEBA TURISMOA. *El encierro de Deba*.

CLUB COCHERITO DE BILBAO.SERVISISTEM. MAYO 2010. *Corridas de toros conmemorativas del centenario del Club Cocherito de Bilbao*.

WIKIPEDIA. *Lusi Mazzantini Eguia y Castor Jauregibeitia Ibarra*.

FERNADO BEREZIARTUA, RAMON ETXEBARRIA, FERNANDO ARAKISTAIN. *Azpeitiko Sokamuturra*.

JUAN LUIS BIKUÑA. CONSEJERIA DE INTERIOR.GOBIERNO VASCO. MARZO 2009. *La fiesta de los toros en Euskadi. Prólogo al texto normativo del Reglamento Taurino del País Vasco*. .